

# 20 URTEZ BERTSOLARITZA JORRATZEN

## Xenpelar Bertso Eskola

**1** 987an sortuz geroztik, 20 urteko ibilbidea egin ondoren, bertsolaritza jorratzen jarraitu nahi dugu; beti bezala apal-apal, baina etengabe lanean.

Hiru pertsona hauen ekimenez sortu zen Xenpelar Bertso Eskola: Jose Luis Zabala, Jose Luis Maritxalar eta Xabier Iguaran, AEK-k lagunduta.

Garai hartan bertsolaritzak ez zeukan gaur egungo presentziarik hedabideetan. Herrian erdal giroa zen nagusi, baina hala ere, pertsona hauen ausardiari esker, bertso-eskola abian jarri zen. Geroztik gazte asko pasa da eskolatik; baita helduak ere. Orain uzta jasotzen hasiak gara: Baditugu bertsolari batzuk bat-batean bertsotan txukun kantatzen dutenak, aski ezagunak direnak herrian; bertsopaper lehiaketetan sariak lortzen ari direnak ere bai, epaile lanetan dabiltzanak, gai-jarrarritzaileak... Gure egitura sendotzen ari da.

Orain 20 urte guzti hau pentsaezina zen. Ilusio eta borondate handiz egindako lan esker-garen ondorioa da. Aipatzeko hor daude:

Txantxangorri sariketak, Santo Tomasetako saioak, Zapirain Anaiak eta Ibon Zabala lehiaketak (bertsopaperak), Santio eguneko saioak, omenaldiak, hitzaldiak, GR-5, GR-8, GR-12...

Egoitzarik gabe jarraitzen dugu hala ere; Ikastolako geletan biltzen gara. Ez dugu leku egokirik hogeitau urteotan pilatutako materiala (liburuak, argazkiak, zintak, CD-ak, kartelak...) gordetzeko. Udalari eskatutako lokalaren zain jarraitzen dugu; ez dakigu noiz arte. Beharrezkoa dugu, ordea, gure artxibategiak antolatzeko, ordenagailua jartzeko eta lanerako gune egoki bat edukitzeko, geure etxeetan lanean eta materiala non gorde jakin gabe ibili ordez. Ez dugu luxuzko lekurik nahi, egokia baizik. Bertsolaritza maite dugulako, zaindu eta berreskuratu nahi dugu herrian, gure hizkuntzaren altxor bat delako eta gu herriaren zerbitzura gaude. Horretan dihardugu hogeitau urteotan. Ez al dugu hainbeste merezi?

Ea Udal berriak gure arazoa konpontzen duen.




## HASTAPENAK

Oiartzuarren laguntza ezinbestekoa izan zen lehenengo urteetan. Irakasle hauek izan genituen: Kontxi Begiristain, Aitor Etxebeste, Karlos Aizpurua, Andutz Labandibar, Asier Bergaretxe, Arkaitz Goikoetxea, Esteban Martiarena eta Juan Mari Lopez. Gero, geureak trebatzen joan ziren heinean: Iker Goñi, Ibon Zabala, Mikel Aginaga, Jon Ansa, Aitor Albistur, Arkaitz Oiartzabal, Itsaso Lekuona...



## OMENALDIAK

Aipagarrienak, besteak beste, Zabaleta anaiei, Atañori, Makazagari, hildako Mikel, Iñaki eta Ibon kideen amei, Gaztelumendiri, Arkaitza tabernari, Xamalbideri... egindakoak izan dira.





## **BERTSO KRITIKA IKASTAROAK**

2002az geroztik urtero egiten da.



## **MADALENAK**

Herriko jaien baitan urtero Santio egunez bertso-saioa egiten da.



## **TXANTXANGORRI SARIAK**

Txantxangorri saria 1999. urtean sortu zen. Herriko bertsolarien txapelketa hau geroztik urtero jokutzen da. Iaz, binakakoa izan zen; beste guztiak, banakakoak.



## **"ZAPIRAIN ANAIK" BERTSOPAPER LEHIAKETAK**

Bertsopaper lehiaketa hau 1989an sortu zen eta geroztik urtero antolatzen da. 1998ra arte gazte-entzat eta helduentzat; 1999az geroztik helduentzat soilik.



## **"IBON ZABALA" BERTSOPAPER LEHIAKETAK**

Gazteen mailako bertsopaper lehiaketa hau 1999an sortu zen eta geroztik urtero antolatzen da. Eskualde mailan 2005era arte; 2006az geroztik Euskal Herri osora zabaldu da. Ibon Zabala, herriko bertsolari gaztea, 1995an istripuz hil zen. Bere omenez sortutako lehiaketa da.





## **SANTO TOMASETAKO BERTSO SAIOAK**



## **BERTSO ESKOLAKO KIDEAK**

Apal-apal, baina etengabe lanean, ahal bada beste hogei urtean. Hauxe da gure asmoa, egoitzarekin edo egoitzarik gabe. Herri honen tradizioari zor diogu, Xenpelarri bereziki.

